

EGUNEKO GAIAK

EG3

KILOMETROAK 2010

# Jai arrakastatsuen ondoren, Lezon ikastola izango dute urtebete barru

Erabateko arrakastaz hitz egin zuten jaiaren antolatzaileek. Aurreikuspen guztiak betez, tren zerbitzuak zein aparkalekuak lepo bete ziren; guneetan ere jangairik gabe geratu arte aritu ziren lanean. «Hona Bostekoa!» lelopean ospatu

zen Kilometroak jaiari esker, Lezon ikastolaren eraikin berria egin ahal izango dute. Pozarren agertu zen Haritz Salaberria alkatea, herriko txikienek ikastolara joateko laster ez dutela-eta herritik irten beharrik izango.

Janire ARRONDO | LEZO

Euskaltzaleek bostekoa eman diote euskarari. Bostekoa euskal kulturari, hezkuntzari eta Lezoko ikastolari. «Hona bostekoa» lelopean, bost gune eta bost helburu zituen aurtengo Pasaia-Lezo Lizeoak antolaturiko Kilometroak jaiak. Euskal Herriko txoko guztietatik gerturatu zen jendea; hitza, berba edo elea baikoitzak berea ahotan hartuta, euskarak busti zuen Lezoko jai.

Bazkalondan egindako lehen balorazioaren ondoren, antolatzaileek «arrakasta» hitza zuten ahotan. Arrakasta, letra larriz.

Inguratu ziren guztiei eskerrak emateaz gain, lanean aritu ziren boluntarioei «merezitako errekonozimendua» eman nahi izan zieten.

Irrintzi eta adar soinu artean, 9.30ean, puntu-puntu eman zioten hasiera 2010eko Kilometroak festa erraldoiari. Herri eta instituzioetako agintarien ekitaldia euskal hezkuntzaren aldeko mezuez gain, bestelako aldarriz beteta iritsi zen. Lezoko alkate Haritz Salaberria azpimarratu zuen Lezon ikastolaren eraikin propioa izateko garrantzia. Hain justu, aurtengo Kilometroak jaiaren helburuetako

bat horixe izango da, Lezon eraikin berria egitea. «Jo eta su aritu gara lanean, momentu on eta txarrekin. Baina, lezoarrentzat aukera bikaina da honakoa hemendik urtebetera haur txikiak ez baitute ikastolarako beste herri batera joan beharrik izango», zioen Salaberriak.

Hala, Lezora hurbildutako guztiei ongietorria eman zien alkateak, baina, Pasaia eta Lezo ingururako martxan dan kanpo portuaren proiektuak ere hartu zuen protagonismoa. «Gure altxorak diren euskara eta ikastola jarri ditugu aitzakia hona gerturatzeko, baina, ibilbidean

ARRAKASTA

**Goizeko hamarretatik eguerdira bitarte, tren zerbitzua jendez lepo zebilen. Halaber, bazkaritarako prestatutako lekuak gainezka egon ziren eta guneetan jangaia amaitu ziren.**

buelta bat ematean, gure beste altxor bat ezagutuko duzue: gure ingurunea». Hala, portuaren proiektuak altxor horiek arriskuan jartzen dituela salatu zuen Salaberriak. Txaloz hartu zituzten harreran bildutakoek alkatearen hitzak; Markel Olanok ez, ez zuen txalorik egin. Ahaldu nagusiak, ikastolek euskal hezkuntza sisteman duten garrantzia azpimarragarria dela esan zuen, eta «beharrezkotzat» jo zituen. Pasaiaiko alkate Maider Zizandak, berriz, Udalbiltzako auzipetuen aldeko hitzak izan zituen eta, manifestazioen debekuak zein atxilotuen torturak



Goizeko lehen orduetatik ibilbidea jendez bete zen Lezon.

Jan URBE | ARGAZKI PRESS